



Erabakia, 2022ko urriaren 20koa, UPV/EHUko Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordearena. Horren bidez, UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileek euskara ikasteko diru-laguntzen 2022ko deialdia argitaratzen da.

Azken urteotan, administrazio eta zerbitzuetako langileei zuzendutako laguntzen deialdiren bidez, Euskararen arloko errektoreordetzak sustatu egin du euskara ikastea.

UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako pertsonaleko langileen euskalduntze prozesua HAEE erakundeak antolatutako ikastaroen bidez burutzen ari da.

Hala ere, badaude langileak IVAPek emandako ordu-kreditua agortuta daukatenak edo ordu-kreditua izan arren, IVAPeko erakundeak egindako deialdietan ezin izan zuten parte hartu, UPV/EHUko langilea ez izateagatik, eta egoki irizten da langile horiei laguntzea, neurri batean bada ere.

Hori guztia kontuan hartuta, ondokoa

ERABAKI DUT:

Lehena:

Argitaratzea UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileek euskara ikasteko diru-laguntzen 2022ko deialdia, eranskinean zehazten den moduan.

Leioan, 2022eko urriaren 20an.

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordea /
La Vicerrectora de Euskera, Cultura e Internacionalización

Resolución de 20 de octubre de 2022 de la Vicerrectora de Euskera, Cultura e Internacionalización de la UPV/EHU, por la que se hace pública la Convocatoria año 2022 de subvenciones para el aprendizaje del euskera por el personal de administración y servicios de la UPV/EHU.

Durante los últimos años, el Vicerrectorado de Euskera ha promovido el estudio del euskera mediante una convocatoria de ayudas dirigidas al personal de administración y servicios.

El proceso de euskaldunización del personal de administración y servicios de la UPV/EHU se está llevando a cabo por medio de los cursos de euskera organizados por el IVAP.

Sin embargo, algunos trabajadores han agotado el crédito horario del IVAP o aun teniendo crédito horario no han podido tomar parte en las convocatorias del IVAP por no ser trabajadores de la UPV/EHU y se considera oportuno ayudarles en algún grado.

En su virtud,

RESUELVO:

Único:

Publicar la Convocatoria año 2022 de subvenciones para el aprendizaje del euskera por el personal de administración y servicios de la UPV/EHU, según se especifica en el anexo.

En Leioa, a 20 de octubre de 2022.